



Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Kremailera kostata itxi zuten



HARPERS WEEKLY



ANTONIO ACEVEDO

Ekzerretik eskuinera: Elias Howe, kremaileraren antzeko mekanismo bat patentatu zuen lehena; erdian, Gideon Sundbacken patentea, kremailera modernoaren oso antzekoa, eta Whitcomb Judsonen urte batzuk lehenago merkaturatutako asmakizuna hobetu zuena; eta azkenik, kremailera moderno bat.

NEW YORK, 1851. Elias Howe asmatzaileak “arroparentzako itxitura automatiko jarraitua” patentatu zuen. Urte batzuk lehenago Walter Huntetik asmatutako josteko makina hobetu eta lehenengoz patentatu zuen Howek. Eta, beharbada, tramankulu hark merkaturatzea izan zuen arrakastak aseta, edo beste asmakizun horren erabilera argi ikusten ez zuelako, kremailera primitibo hura ez merkaturatzea erabaki zuen. Hala, “kremaileraren aita” ofiziala izateari uko egin zion.

40 urte baino gehiago joan ziren 1893an Whitcomb Judsonen antzeko “itxigailua” patentatu arte. Bi asmakizunak oso antzekoak ziren, baina Judsonen erabilera zehatza eman zion –botak ixtea– eta merkaturatzea erabaki zuen. 1893ko Chicagoko Erakusketa Unibertsalean aurkeztu zuen tresna konplexua; Universal Fastener Company etxea hura ekoizten hasi zen, baina ez zuen eroslerik topatu.

1906an, Suedian jaiotako Gideon Sundback elektrizitate ingeniaria Universal Fastener Companyn hasi

zen lanean, Judsonen patentea eskuratu zuen enpresa berean. Diseinuan trebea izateak eta enpresako buruaren alaba Elvira Aronsonekin ezkondu izanak, 1909an konpainiako diseinuburu izatera eraman zuten. Besteak beste, batere praktikoa ez zen Judsonen itxigailua hobetzea zuen helburu. Tresna errazago ixtea lortu zuten, baina berriro irekitzea oso gaitza zen eta asmakizuna, hirugarrenez, baztertuta geratu zen. 1911n, suediarren emaztea hil egin zen eta, dolu betean, Sundbackek buru-belarri jardun zuen asmakizuna hobetzen. Bi urteko lan obsesiboaren emaitza kremailera modernoa izan zen. Kremailera fabrikatzeko makina ere berak asmatu zuen.

Asmakizun praktikoa zen, merke ekoiztu zitekeen, baina urtetan gomazko bota eta tabako zorro gutxi batzuk ixtera mugatu zen, 1937an Parisko jostun batek gizonen gaitzetan jartzea erabaki zuen arte. Pentsak, orduan, zegoeneko 86 urte zeuzkan asmakizun hura “jostintzako ideia berritzaileena” zela esan zuen.

Arrastoak

Antzinako Egipton protesiak erabiltzen zituzten

HATZ LODIAREN forma duten bi pieza daude –bata Kairoko Egiptoar Museoan eta bestea Londreseko Britainia Museoan–, biak K.a 1.000 eta 600 urteen artean datatuak. Bi apendizak momiatan aurkitu zituzten eta, horregatik, gorputzei momifikatzean, hau da, hil ondoren erantsi zizkietela uste zuten adituek. Baina Jacky Finch Manchesterreko Unibertsitateko ikerlariak behatzok bizirik zeudela erabili zituztela uste du. Hipotesia frogatzeko Finchek piezen erreplika zehatzak egin zituen eta atzamar lodirik ez zuten boluntarioei ipini zizkien. Antzinako egiptoarren ohiko sandaliak jantzita eta piezak erantsita eroso ibiltzea lortu zuten. Ibiltzen laguntzeaz gain, material sendoz eginak daude, itxura errealista dute eta jartzeko errazak dira. Horrenbestez, protesiak erabiltzen lehenak egiptoarrak izan zirela frogatu du Finchek, eta ez erromatarrek, orain arte uste bezala.



UNIVERSITY OF MANCHESTER

Luxorren induskatutako hilobi batean aurkitutako protesia, Kairoko Egiptoar Museoan.